



SAIOAK

asteazkena 29

ERRATZU

Plazan, 20.00etan
M. Arozena, Mendizabal

BERRIATUA

Plazan, 12.00etan
J. Enbeita, Euzkitze

ostirala 1

IRUN

Behoko plazan, eguerdian
Euzkitze, Lizaso, Egaña, Telleria

DIMA

Plazan, 20.00etan
J. Sarasua, S. Lizaso

DONOSTIA

Igeldo auzoan, 21.00etan
Garmendia, Mendiluze

ZUMARRAGA

Beloki pilotalekuan, 23.00etan
S. Lizaso, Egaña, Murua, Jon Sa-
rasua, Lujanbio, Elortza, Iturriaga

ELGOIBAR

Bertso afaria
San Pedro auzoan, 21.00etan
Gorrotxategi, Agirre, Lodisaletxe

ASTEASU

Pilotalekuan, 22.30etan
Peñagarikano, Irazu, Mendizabal,
Soroazabal

larunbata 2

ATAUN

Aia auzoan, egun osoan plazan
Soroazabal, Zeberio

OÑATI

Torreauro auzoan, plazan
22.30etan
Soroazabal, Telleria, Lasagabaster,
Igartua

MUTILOA

Bertso afaria,
Elizpean 21.00etan
Egaña, Peñagarikano

MUNGIA

Kiroldegian, 23.00etan
J. Lopategi, Murua, Manolo Aro-
zena, Gorrotxategi, Larrañaga

ARAMAIO

Pilotalekuan, 22.00etan
S. Lizaso, J. Lizaso, Mendizabal,
Mañukorta

USURBIL

Pilotalekuan, 22.00etan
Sukia, Esoain, Lujanbio, Lopez,
Munduate

igandea 3

OIARTZUN

Altzibar auzoko plazan, 19.30etan
Lazkano, Agirre

AMOROTO

Erdi hitzaldi erdi bertso saioa,
12.00etan
Jon Sarasua, Amuriza, Muniategi
Pilotalekuan 18.00etan
Egaña, Peñagarikano, Iturriaga,
Ibarra, Sarasua, Soroazabal
Santi Onandiarri omenaldia dela
eta

MUNITIBAR

Plazan, 12.30etan
Ararburu, Gojenola, Ajurio

MUTILOA

Plazan eguerdi eta arratsaldean
S. Lizaso, Murua

DONOSTIA

Igeldo auzoan, 20.00etan
S. Lizaso, Zeberio, Lujanbio, Maia,
Irazu

ANTZUOLA

Usarragan eguerdi eta arratsal-
dean
Larrañaga, Narbaiza

■ Bertsolaritzako bi belaunaldiren ordezkariak: Amaia Telletxea eta Ainhoa Agirreazaldegia eta Joxe Agirre eta Joxe Lizaso. ■ Zuzeneko eta zeharkako bertso moldeak nabari ditzakegu euren bertsogintzan.

Zaharrek eta gazteak parez pare

Bertsolaritzako belaunaldi biren ordezkariak kantatu zuten Axpen larunbatean

IZASKUN ELLAKURIAGA / AXPE

Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Ainhoa Agirreazaldegia eta Amaia Telletxea aritu ziren bertsotan larunbat gauean Axpen (Bizkaia). Gazte bi eta zahar bi, emakumezko bi eta gizonezko bi. Bertsolaritzaren belaunaldi bi ikusi eta entzuteko aukera izan genuen Axpera hurbilduta.

Agirre, Lizaso eta Agirreazaldegia ariko zirela iragarrita zegoen jai egitarauan. Saio interesgarria izateko osagaiak bazituela iruditu zitzaidan. Batetik, bertsolaritzan bikotea osatzen duten Agirre eta Lizaso genituen: belaunaldi zaharrek, bertso-tarako molde tradizionalak. Bestetik, Ainhoa Agirreazaldegia, azkenaldian gazteen belaunaldi berri nabarmentzen hasi den bertsolaria.

Agirre-Lizaso bikotea ez da Bizkaia aldean sarritan entzuteko aukera egoten. Ainhoa Agirreazaldegia, ordea, larunbata arte behin baino ez nion bertsotan entzun (Elgetan 1994ko martxoaren 10ean) eta orduan jasotako impresio ona neukan goan.

Axpera heldutakoan Amaia Telletxea ere bazela ikusi nuen. Ez zuen horrek nire eskema apurtu. Bi nesken arteko konplizitateari laster erreparatu nion eta larunbat gauean trumoi izango genuela pentsatu nuen. Ez zen joan bide txarretik nire uestea.

Saio laburra egin zuten, hiru ordu laurden eskas. Eta egitura aldetik, nahiko arraro planteiatu zuen gaijartzaileak. Horrek ilundu egin zuen pixka bat saioa. Bertsolariek launa bertsoekin entzulea agurtu ondoren (Lizaso gehiago ere botako zituen baina gaijartzaileak moztu egin zuen), bakarkako gaiak esaten zuenari erantzun zioten laurak eta puntuka eginez bukatu zuten saioa.

Baina gaijartzailearen lana hurrengo batean aztergai izango dugu; orain, aipaturiko bi belaunaldien arteko txokeari arreta berezia jarriko diogu, zenbait bertsori esker.

Ainhoa Agirreazaldegia:
*Neska txiki-hau nor ote degu?
entzun det lehen hor galdezka,
Ni Ainhoa naiz gaurko gaztena
beitu besterikan ez da,
hamasei urte, oso gustora,
dabilena festaik festa
zuen Axpeko edozein mutil
hartzeko moduko neska.*

Joxe Agirre:
*Nongoa naizen esatera naiz
ni ere orain behartua,
beharbada norbait egon zitekeen
lehendik usaia hartua,*



Gazte bi eta zahar bi, emakumezko bi eta gizonezko bi. Ez zen ohizko saioa izan Axpen antolatua zena. I.E.

✓ **Bi belaunaldi, bi bertso molde ikusi eta entzuteko aukera izan zen Axpen. Zein den hobe zein txarragoa ezin daiteke esan, bakoitzak dituen gustoen arabera dugu hori.**

*ni Azpeitiko semea naiz bai
baserri batean sortua,
lau hamaseiko ere badauzkat
nahiko aitona zahartua.*

Ainhoa Agirreazaldegia eta Joxe Agirrek agurrean botatuko lehen bertsoak dituzue. Biek beren buruak aurkeztu zituzten, horretarako modu ezberdinak aukeratuz. Ainhoak bere aurkezpeneko era zuzena erabili du eta azkenean bere intentzioa azaldu: mutil bila etorri dela. Joxe Agirrek zeharkako bidea hartuko du. Adibide garbia dugu azken puntua. Aurrez Ainhoak esandakoari helduz, bere adinaren berri ematen digu.

Zuzen eta zeharkako bertso molde hurrengo lau bertsoetan ere nabari da. Orain ere Joxe Agirrek bertso bukaeran erabilitako atsotitza nabarmena da.

Joxe Lizaso:
*(...)
nola dijuan mundua,
arrazoi dezu aitona zaharra
ni nagoela segurua,
zu ere esango zer ote zeran
aingeru edo usua,
nik egunero laztandutzen det
zu baino zatarragoa.*

Amaia Telletxea:
Hemen Lizasok bere egia

horrelaxe digu konta, jende pilo bat izanagatik ez zaio askorik inporta, baina hala ere nigana hurbiltzen etzazu egin borroka, kontuz ibili herri hontako apaiza hortxen dago ta.

Ainhoa Agirreazaldegia:
Guk esan degu ez zaretela biok neskatzen neurriko, nik pentsatzen det zuk gaur Amaia

ez al dezun kaltetuko, hau mutil bila saiatu arren gaurkoz fuerte eta tinko, bera zurea denan ustetan ez zaizkio hurbilduko.

Joxe Agirre:
Gauzak moduan hitzegitera heldu gara azkenian, bi aingerutxo hementxe daude aitonen aldamenian, guk ere badeu zerbizua besterikan ez darian, ardoa ere jan egiten zan ogirik ez zanian.

Lizasoren bertso moldeak badu zer aipatu. Bertsotan lehen esaldi edo puntua oso gutxitan harrapatu ahal izango zaio, batez ere aurretik norbaitek kantatu badu. Txaloak amaitu orduko bertsoa botatzen hasten da. Horrez gain, sarritan entzuleari

bizkarra eman eta bertsolariei zuzenean kantatzen die, hauek laztanduz batzuetan. Amaiak argi uzten digu bertsoaren hirugarren puntuan.

Hasierako agurren antzera, azkenengok ere bi bertso molde azaltzen dizkigute. Lizasok nahiko agur klasikoa egiten du: amaitzeko ordua dela aipatu, entzuleari erreferentzia egin eta agur esan. Amaiak ere era klasikoan hasten du bertsoa (saio orokorra eta ordua aipatuz). Baina azken puntua entzuleari eskaini beharrean, Lizasori zuzentzen dio saioan izandako gora-beherei amaiera biribila emanez.

Joxe Lizaso:
Amaitzeko garaia zaigu iritsia, betirako ez bainaiz honuntz etorria, ez dakit ase dugun bertso egarria, honekin uzten zaitut ta agur Bizkaia.

Amaia Telletxea:
Saio koxkor bat egin degu guk hemen gutxi gora-behera, hamabi terdiak pasa dira eta goaz isiltzera, orain banoa Ainhoarekin ni parranda egitera, eta haurtxoak eta aitona joan behar dezute ohera.

Bi belaunaldi, bi bertso molde ikusi eta entzuteko aukera izan zen Axpen. Zein den hobe zein txarragoa ezin daiteke esan. Pertsona bakoitzak dituen gustoen arabera dugu hori.